2008ko ESTATISTIKAK (lehenengo 9 hilabetekoak)

Datuak 2008. urtean zehar egindako kontsultetatik atera ditugu (140); aholku bulegoak Barakaldon, Bilbon eta Basaurin daude.

Aholkularitza bulegoetara hurbildu diren langileetatik %58 etorkinak ziren, haietatik %48 egoera irregularrean zeuden.

KANPOAN LO EGITEN DUTENAK

Langile guztien %73k kanpoan egiten du lo. Haietatik %47 etorkinak dira eta honen barruan %42 egoera irregularrean daude.

LANALDIA

%37 lanaldi osoan aritzen dira, gainontzekoak, lanaldi partzialean.

Lanaldi osoan ari direnean artean, %66k 40 ordu baino gehiago egiten du lan, eta hauen barruan %32ren ohiko lanaldia 60 ordu baino luzeagoa da; azken hauek menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzen ari dira.

SOLDATA

%13k gutxieneko soldata jasotzen du; %43k gutxieneko soldata gainditzen du; %44k ez du egiten duten lanaldiari dagokion gutxienekoa jasotzen.

Aipatzekoa da astean 21 eta 30 ordu arteko lanaldia dutenek maiz gainditzen dutela gutxieneko soldata. Berriz, 31 ordutik aurrera lan egiten dutenak dira gutxieneko soldata jasotzera ailegatzen ez direnak. Beraz, zenbat eta ordu gehiago lanegin, orduan eta soldata txikiagoa jasotzen da, horrela erraz gerta daiteke 25 orduko langile batek 39 orduko beste batek baino gehiago irabaztea.

OPORRALDIA

- Ordaindutako 30 egun: %61.
- Oporraldia badu baina ez zaio ordaintzen: %2
- Ez du oporraldirik baina ordaintzen zaio: %10
- Ez du oporraldirik ezta ordainketarik: %27.

APARTEKO PAGAK

- Bi, 15 egunekoak: %58
- Bi, 30 egunekoak: %13
- Ez dauka: %29

SEGURIDAD SOCIAL
GIZARTE SEGURANTZA

20 ordu baino gehiago lan egiten dutenen artean (Gizarte Segurantzan altan egotera derrigortuta daude), %45 ez dago altan.

BARRUAN LAN EGITEN DUTENAK

38 emakumek, alegia % 27ak barruan lo egiten zuen. Haietatik % 87 etorkinak ziren, eta haien barruan %56 egoera irregularrean zeuden.

LANALDIA

Langileen %100ak egunean 10 ordu baino gehiago lan egiten zuen.

SOLDATA

Soldatak 700 euro (gutxien kobratzen zuena) eta 1.200 euro (gehien kobratzen zuena) artean zeuden. Batez bestea 882 eurotan dago.

%55ak ez du soldataren arabera dagokon gutxieneko soldata jasotzen; kontuan hartu behar da 60 orduren trukean 900 euro jaso beharko liratekeela.

ASTEKO ATSEDENA

- Astean egun erdian: % 26
- Astean egun baten edo bi egun erditan: %32
- Astean egun eta erdian: %26
- Astean bi egunetan: %0
- Ezer ez. %16

EGUNEKO ATSEDENA

- Ezer ez: %66
- Egunean ordubete: %17
- Egunean bi ordu: %17
- Egunean bi ordu baino gehiago: %0.

OPORRALDIA

- Ordaindutako 30 egun: %63
- Oporraldia badu baina ez zaio ordaintzen: %5
- Ez du oporraldirik baina ordaintzen zaio: %0
- Ez du oporraldirik ezta ordainketarik: %32

APARTEKO PAGAK

- Bat, 15 egunekoa: %3
- Bi, 15 egunekoak: %63
- Bi, 30 egunekoak: %13
- Ez dauka: %21

GIZARTE SEGURANTZA

%63 ez dago altan Gizarte Segurantzan. Haietatik %79 ez dago altan egoera irregularrean dagoelako, gainontzeko %21ak paperak dituzte eta jardunaren arabera altan egon beharko lukete.

ONDORIOAK

Iazko datuekin alderatuta, soldaten batez bestea igo da, baina barruan lo egiten dutenen artean soldata igoera konpentsatuta dator aparteko pagak eta oporraldia ez kobratzearekin; beraz igoera hori itxurazkoa dela esa daiteke, soldata izaera duten kontzeptu batzuk kobratzen ez diren heinean.

Nabarmentzekoa da Gizarte Segurantzan alta eman gabe daudenen kopuru altua, bai kanpoan bai barruan lo egiten dutenen artean.

Baita ere kontuan hartzekoa da altan daudenen artean askok Errejimenaren kuota osoa ordaintzen dutela, alegia, enpleatzailearen eta langilearena; edo osoa ez bada ere, dagokiena baino kopuru altuagoa.